

EXOZENTRIKOEN AZTARNAK
EUSKAL HIZTEGIAN

LUIS MARI MUJKA

Gehiegikeriarik esateko beldurrik gabe, baiezta dezakegu euskara dela semantika exozentriko aberatsenetakoa duen hizkuntza. Ondorengo orritan psiko-sozial aldetik lerradura exozentrikoa azaltzen duen hitz aunitz ikusiko dugu (1).

Fenomeno hau, batez ere, euskal atributiboetan, oso berezia da, nahiz-eta gaur diglosiagatik formula ugari itzaltzeko zorian egon. Anatomici substratua duen (*aho, esku, bihotz, buru, mihi*, etab) atributo exozentriko ugari dugu, balorapen psikologikoen eraginez.

Guk lerradura hoiek logikoki sailkatuko ditugu, batez ere, *kolore, zoologia, botanika, objektu-tresneria* eta *tipologiari* atxikitako kasutan.


Metonimiak, eta zeharkako semantikak, euskaran gaztelanian, frantzesean, eta, behar bada ingelesean baino, desarroilo bortitzagoa du. Joera exozentriko honen arrazoia, behar bada, euskaldunaren izaera ironiko, bihurri eta okerrean datza. Euskaldunak mintzatzekoan albo-ko kera sugestiboak maite izaten ditu, hitzen usarioei bigarren asmoa emanez, eta satira ere jarraituz. Bestalde, euskara abstrazio mailan baino, expresakera arruntean gehiago erabilia izan da. Bere balioztapenak, horregatik, maiz expresakera alboko eta zeharkakotan (indirecto) datoz. Edozein objektu ala elementuak balentzia exozentrikoa har dezake euskaldunaren ahoan, *kaiku* (cuenco), *mailu* (martillo), *gazanbera* (quesón), *ontzi* (cubo) hitz arruntetan gertatzen den gisara.

Euskalduna errealitatearen miatzaile fina da, eta errealitate hori «zeharkako konnotapenez» beterik azaltzen da bere irudimen sinbolistaren aurrean.

(1) Artikulu hau «Eusko Ikaskuntzaren» *Mintzaira* eta *Literatur* sailan (1981-eko urtarrilaren 31.n) aurkeztua izan zen, eta gerora «Hitz Konposatu eta eratorrien morfo-fonetika liburuan (Edic. Vascas, 1982) argitaratua eraskin bezala.

Honela, mila hitz arruntak euskaraz «zeharkako balentziak» irabazten du, inguru-munduari esanahi berriak erantsiaz. Dударik gabe, bide hortatik gure hizkuntzak hitz berri asko ekonomizatzen du, hitz bat bera semantika aunitzez hornitzen delako. Honako elementu hauek exozentrikoak dira kasu batzutan: *lukainka* (longaniza), *artaburu* (panoja), *gaztanbera* (requesón), *babalore* (flor de haba), *mailu* (martillo), etab. Hitz hoiiek, konkretuki, exozentritate hau jasotzen dute itzulita: *imbécil*, *ingenuo*, pelma. Adierazitako hitzak, nolabait, *pasibitatea*, *desadimena*, *kolpea* adierazten dute.

Exozentrismoaren fenomenoa ez da, noski, euskararen pribatiboa; beraz, gaztelaniak, adibidez, badu antzeko balentziarik hitz konkretu batzutan. Hala nola: *catre*, *tarugo*, *melón*, *zoquete*, *cotorra*, *merluza*, etab. balioztapen *exozentrikoaz* ere erabili ohi dira, denok dakigun bezala (*catre* = idiota, *melón* = imbécil, *tarugo* = tonto, *cotorra* (hegazti bat) = habladora). Lerradura semantiko berdina «nos soltó un rollo» esaldian, *gardunaldi aspergarrizkoa* adierazteko. Beraz, *rollo* eta *asperduraren* artean halako lotura psikologiko bat dago, bukagabetasunagatik. Baita, *zoquete* hitzak balorapen antzekoa du, «egurrezko pusketa» batek bezala zozoak (el zoquete) ez dulako ezer ulertzen...



Esandako guztia gure hizkuntzan oso desarroilatua dago. Batzutan, esanahi exozentrikoa endozentriko edo berezko semantikarik gabe eman daiteke, *ahobero* (locuaz) hitzean bezala, ez baita adierazi nahi hemen «de boca caliente» den zerbait, baizik eta bestea; alabaina, gehienetan, esanahi exozentrikoak aurrez endozentrikoa darama, normala den bezala. Literala ia beti lehenik baita. Adibidez: *muturluze* (hocicudo/endozentrikoa, *descarado* / exozentrikoa), *betilun* (de ojos oscuro: s/endozentrikoa, *triste* / exozentrikoa). Gaztelaniazko *castaña*, *merluza*, *mona* etabarrek balentzia exozentrikoa dute *mozkorkeriaren* norabidean.

Guk hemen adierazitako fenomenoaz hitz-materiale larria bildu dugu. Gure ustez, hiztegiaren alde semantiko hau oso interesgarria da. Hemengo hitz aunitz Azkue-ren hiztegi nagusian dator; ala ere, esan behar dugu hiztegi horrek ez duela biltzen gure lexiko guztia, eta, batez ere, arlo hontan. Beste aportazioak badira Azkue-k «castellano-eusquera» hiztegirako egindako apuntetan, gero Plazido Muxika-ren eta Aunamendi-ko liburuxketan nolabait isladatzen direnak. Gure iritziz, materiale hori aprobetxatu egin behar da, batez ere, *exozentritate* fenomenoa zabalkiago aztertzeko. Baita aipagarria da hontan F. Seguraren aportazioa, Azkue-ren hiztegian batzutan present dagoena. *Argot-* mailako izenlagun eta atributibo aunitz falta da Azkue-ren hiztegi handian; bereziki, anatomi funtsa duen atributo aunitz falta da haren hiztegian. Atributo hoiek literaturan eta aho-hizkeran oraindik bizirik daude Euskal Herrian, neurri batean.

Bestalde, jakitun izan behar gara beste faktore batetaz, alegia, arlo semantikoek aldaketa asko experimentatzen dutela bere lerraduran eta definizioetan. Euskarak lerradura (corrimiento) horren adibide bitxiak dauzka norabide guztitara, bai hizkuntza barnean euskalki batetik bestera, eta bai euskaratik kanpo gaztelaniara, adibidez. Honela, gaurko «goardasola» AN, B, G ez da lehengo «parasol»aren ordaina, baizik eta oraingo «paraguas»-ena. *Alproja* hitzean gaur pertsonari dagokion esanahia dago, bainan gaztelaniaz objetuarena (alforja). Berdin *pardel* G (saco eta *idiotá*), *mandil* AN (mandil eta *holgazán*), *maketo* B (macuto eta *no vasco*) kasutan.

Euskararen barnean lerradurak euskalkietan ere eman daitezke. *Belarrondokoa* gipuzkeraz «bofetada» da eta goi-nafarreraz eta bizkaieraz «almohada». *Zuhaitz/zugaitz* kasuan lerradura dago; gipuzkeran lehen «árbol bravío» bakarrik adierazten zuen; orain edozein arbola (fruitaduna ere) adierazteko erabiltzen dute batzuek. Nire jaioterrian zugaitza «basoko arbola» da. Probableki, fenomeno berdina *arotz* B, G hitzean, *faber* esanaiatik *carpintero* esanahira. *Zurgin* AN, B, L, R hitza da propioena hor (*zur egile*), baina gero *harotz* erabili da (hots, *faber* bezala), *burdinarotz* AN, BN, R, S («faber del hierro») berbak adierazten duen bezala.

Alderantziz, beste batzutan prozedura semantikoak norabide mugatu edo antizabalkorra har dezake, *leio* c. (ventana) kasuan bezala; bizkaieraz *saetera* adierazten du hitz horrek, *bentaneak* bestea adierazten duen bitartean. *Motz* hitzaz bestainbeste gertatzen da, adibidez, euskalki gehienetan «corto, romo» esan nahi duelarik, bizkaieraz «feo» ere adierazten du.

Azkenik, semantikak funtzio berria ere eskura dezake hizkuntz maila zertu batzuetatik; *erretolika* G (sarta de palabras) kasuan ez daiteke eman *retórica* hitz *kultuaren* ordain bezala, beste alboko esangura bat hartu baitu, eta berdin zaramatika BN, Sal. (embrollo) kasuan *gramatica-ren* ordain. Eta baita gogoratu apofoniak sor dezaken mugapen semantikoa, *sendOtu/sendAtu*, *galdEtu/galdAtu*, *osOtu/osAtu* kasutan bezala.

Huirengo lerrotan hemen komentaturiko exozentzitate faktorearen intzidentzia hitz-arlo-desberdinetan ikus dezagun.

1. EXOZENTRIZITATEA «KOLORETATIK»

Kurioski, *kolore* batzuek balentzia semantiko berezia dute gure hizkuntzan; baina, hau gerta daiteke beste hizkeretan ere, hala nola, gaztelaniaz «pasó las *moradas*», ala «está al *rojo vivo*» esatean.

Euskaraz hiru kolore nabarmentzen dira *exozentzitate* arloan. Dira: *zuria*, *gorria*, *urdina*. Zuri koloreak *faltsu* konnotapenak hartzen ditu. Gorriak gogordura, bortiztasuna, intentsitate nabardurak. Honela «kale *gorrian*» (en plena calle), «premi *gorrian*» (en gran miseria). *Gorriak*, baita, *biluztasuna* adieraz dezake, *Aizkorri* (peña pelada), *lurgo-rrri* (tierra quemada o pelada) kasuan bezala.

Urdin koloreak ez du norabide semantiko hain desarroilaturik, baina badu konstante bat *zikin* edo *satsuaren* (abyecto) kontzeptu bidean BN, R. euskalkietan (neska *urdina* / andre *urdina* = chica sucia, mujer sucia). Bestalde *urdin* koloreak zonalde batzutan *cano-grisáceo* adierazten du. Honela «ile *urdina* = pelo cano».

Beltzak, ere, noski, badu balentzia exozentrikoa, baina ez da euskararen pribatiboa. Hizkuntza aunitzetan *neketsua*, *zaila*, *izugarria* adierazten du, «pasó las *negras*» (gurean «beltzak ikusi zituen», «beltzak entzun zituen»). Semantika hortaz hornituta daude hitzok ere: *iparbeltz* (viento muy frío), *aizebeltz* (vendaval).

Hona, bada, koloretatik sorturiko izendegi exozentrikoa. Lehenik euskal hitza emanen dugu, bigarrenik esanahi *exozentrikoa* eta hirugarrenik esanahi *endozentrikoa* eta *literal*a (dagoenean).

HITZ EXOZENTRIKOAK «KOLORE» OSAGAIEZ (1)		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoa</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
goseGORRI L, BN, S, R	hambre canina	hambre ROJA
barneZURI L	falso	interior BLANCO
buruZURI B, L	cándido. ingenuo	cabeza BLANCA
elheZURI BN	hipócrita	lenguaje BLANCO
gezurTXURI R	hipócrita	mentira BLANCA
umeGORRI B, G, L	inexperto	crío ROJO
buruBALTZ B	sesudo, prudente	cabeza NEGRA
sabelpeXURI S	embustero	bajoviente BLANCO
iparGORRI B, BN, R	viento norte muy frío	norte NEGRO
haizeGORRI S	viento frío	viento ROJO
kaleGORRI B, G	plena calle	calle ROJA
BELTZURI B	entrecejo	NEGRO-BLANCO
sabelGORRI G	cruel	entraña o vientre ROJO
ZURIGaldu (Pl. M.)	traidor	BLANCO-perdido
lanTZURI G	remolón, perezoso	trabajo BLANCO
nekaZURI AN, G	remolón	cansancio BLANCO
emazte-URDIN (Pl. M.)	meretriz (sucia)	esposa AZUL
mamaGORRI L	aguardiente	bebida ROTA
ZURITO AN, G	meloso	BLANQUITO
gainXURI (Pl. M.)	halagador	dorso BLANCO
aoXURI (Pl. M.)	halagador	boca BLANCA
azalTZURI (Pl. M.)	fingido	corteza BLANCA
eskerBALTZ B	ingrato	gracias NEGRAS
kaltzaGORRI AN, G	diablo	calzón NEGRO
belaunGORRI R	desnudo	rodillas ROJAS
irriZURI (Pl. M.)	risa burlona	sonrisa BLANCA
larruGORRI (Azk.)	en cueros, desnudo	cuero ROJO
biluzGORRI L	en cueros, desnudo	vello ROJO
TXURIKApinto G	halagador	ENBLANQUECEDOR
orpoGORRI B	descalzo	talón ROJO
beharGORRI (Pl. M.)	indigencia, miseria	necesidad ROJA
odolGORRI (Pl. M.)	cruel	sangre ROTA
buruZURI B	ingenuo	cabeza BLANCA
ZURIKetari (Pl. M.)	halagador	BLANQUEADOR

(1) Hitz guzti hauetan, ia beti, euskalki bakoitzaren grafia errespetatzen da.

Hitz exozentrikoak «KOLORE» osagaiez		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoa</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
mihiXURI (Pl. M.)	adulador	lengua BLANCA
mariURDIN (Pl. M.)	mujer sucia	Maria AZUL
itz-XURI (Pl. M.)	adulador	palabra BLANCA
sebelTXURI	fingido	vientre BLANCO
premiGORRI G	apremio, indigencia	necesidad ROJA
neguGORRI	invierno crudo	invierno ROJO
mingninTZURI G	embustero	lengua BLANCA
buruGORRI (Pl. M.)	ingenuo	cabeza ROJA
iotsaGORRI	vergüenza atroz	vergüenza ROJA
muturTXURI BN. R	melindroso, goloso	morro BLANCO
URDIN BN, R. S	sucio/lascivo	AZUL
ZURIC	falso	BLANCO
langileGORRI AN, G	trabajador muy activo	trabajador ROJO
langileZURI	trabajador poco activo	trabajador BLANCO
aizeBELTZ S	vendabal	viento NEGRO
arpeLTZURI B	muy perezoso	perezoso BLANCO
ahoGORRI S	insolente	boca ROJA
iparBELTZ BN, R	vendabal	norte NEGRO

2. «ANATOMI» KONTZEPTUETATIK SEMANTIKA EXOZENTRIKOA

Anatomi kontzeptuetatik (*esku, aho, mihi, buru, bihotz, etab.*) sortutako hitz exozentrikoen arloa oso zabala da gurean. Praktikan, giza soinen atal garrantzitsu gehienak balentzia psiko-baloratiboaz hornitzen dira, harrigarriro. Gaztelaniaz ere konstata daiteke horrelako zerbait *manirroto* (generoso), *bocasas* (soplón, muy hablador) hitzetan bezala. Gurean, ordea, askosaz harrotuagoa dago lerradura semantiko hau.

Euskaldunaren izaera miatzaile, transobjetibizatzaile eta ironizaleagatik gure anatomia nagusiena balorapen *semantiko* berriaz jazen da expresabideetan. Honela *bihotz* hitzak hogeitaba baina gehiagoko mamidura exozentrikoa lor dezake. Nire hiztegian 25 bat desarroilo dauzka, eta *esku* hitzak 15 bat. *Neurri* edo *tamaina luze, zabal, labor* bezalako lerradura semantikoen jabe da *eskuzabal* (generoso), *eskulabor* (mezquino), *bihotzabal* (generoso), etab.

Hau dena, noski, euskaldunaren jeinu erdisinbolista, erdi ironizatzaileari zor zaio; berarentzat inguruko errealitatea sugestioz eta zehar-durazko transposizioz beterik daga.

Goian adierazi dugun bezala, koadroaren ertzean esanahi endozentrikoa eta literala dator. Hitz batzutan, ez da ematen usuario endozentrikorik, *literal*a baino (beraz, *eskuzimur* batek, adibidez, oso kasu gutitan edukiko du usuario *endozentrikoa*). Beste kasutan, ordea, aldi

berean bi esanahiak oso ohizkoak izan daitezke (txerri *muturrandia* hoci-cudo) eta atso *muturrandia* (*descarada*). Aipatzekoa da *eskugizen* (de mano *gruesa* lit.) bezalako adjetiboaren sugestibilitatea, *emankortasuna* adierazteko.

HITZ EXOZENTRIKOAK «ANATOMI» OSAGAIEZ		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoa</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
BIHOTZ-guri (Har.)	compasivo	CORAZON tierno
BIHOTZpera AN, B, G, S	compasivo	CORAZON blando
BIHOTZ-suar	brío	fuego de CORAZON
MIHIZorrotz	criticador	LENGUA aguda
MOKObipil L	charlatán	PICO saliente
BEGItxatxu G	lloroso	OJO fatuo
BEGIbera B	lloroso	OJO blando
BELAUngoza B, G	rapidez	RODILLA suave
KOLKOaundiko AN, G.	reservado	PECHUGA grande
BURUZut L	terco, altivo	CABEZA erguida
BURUgogor c.	terco	CABEZA dura
ESKUestu G	mezquino	MANO prieta
ESKU-urriko (Pl. M.)	tacaño	MANO escasa
BIHOTZurri (F. Seg.)	mezquino, cobarde	CORAZON escaso
BIHOTZerori (Pl. M.)	desanimado	CORAZON caído
TRIPAfesta G	comilona	fiesta de TRIPA
ESTEbete (Pl. M.)	comilona	INTESTINO lleno
TRIPAzai AN, G	comilón	guardián de TRIPAS
IPURtzuri G	adulador	CULO blanco
AHOzuri (Pl. M.)	adulador	BOCA blanca
MUSU	beso	HOCICO, MUSO
ODOLordi (Pl. M.)	cruel	borracho de SANGRE
SABELgorri G (Pl. M.)	cruel	VIENTRE rojo
ODOLegarri (Pl. M.)	cruel	sed de SANGRE
ODOLTzale G	cruel	aficionado a la SANGRE
ODOLisurle (Pl. M.)	cruel	derramador de SANGRE
KOLKOzabal (Pl. M.)	persona sin secretos, persona sin secretos, exagerado	PECHUGA ancha BOCA grande
BEGIlarri	sueño profundo	OJO grande
BEGIko G	amado, querido	del OJO
BIHOTZeko c.	Intimo, caro	del CORAZON
KOLKOko S	intimo, caro	del REGAZO
andreMUXU	afeminado	carita de MUJER
TRIPerre B	cascarrabias	TRIPA quemada
ESKUegoki G	chucho	MANO apta

Hitz exozentrikoak «ANATOMI» osagaiez		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoo</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
BEGIgaixto S	cazurro	mal OJO
BIXAiguri (Pl. M.)	inexperimentado	BARBA tierna
BURUzuri B	ingenuo	CABEZA blanca, pelado
KASKAsoil AN	ingenuo	calvo de CABEZA
KASKOgabe (Duv.)	obtuso	sin CRANEO
KASKuts	ingenuo	CABEZA pelada
ESKUase	generoso	MANO llene
ODOLgaitz (Pl. M.)	violento	mala SANGRE
ODOLgaitzo L	violento	mala SANGRE
KASKO dun (Duv.)	listo	dotado de CRANEO
BURUbero G, S	botarate	CABEZA caliente
MOKOguri (Pl. M.)	inexperto, goloso	PICO tierno
AHOLarri BN	fanfarrón	BOCA grande
ODOLbizi c.	inquieto	SANGRE viva
berrIPURDI G	charlatán	CULO-nuevos
BIRIKAndi AN, BN	cachazas	gran PULMON
SABELuzkur	cobarde	VIENTRE encogido
BULARtsu	atrevido	mucho PECHO
IPURtarin G	persona movediza	CULO ligero
IPURterre G	casarrabias	CULO quemado
IPURtaire L	persona movediza	a modo del CULO
IPURdantzeri G	movedizo	CULO danzante
IPURloka B	movedizo, inconstante	CULO inquieto
ESKUerraz	tratable	MANO fácil
BEAZUNDario	desabrido	que mana HIEL
zekar-EPURDI B	desabrido	CULO áspero
BIHOTZ-gogor c.	atroz	CORAZON duro
ESKUeutsi B (Pl. M.)	mezquino	MANO retenida
ESKUargi	obsequiados	MANO clara
BEGIargi AN, B, G	perspicaz, alegre	OJO claro
BEGIzuur B	perspicaz	OJO sagaz
BETargi B, G	perspicaz, alegre	OJO claro
BEGI-bozkari L	alegre	de OJO alegre
MOKOgoxo AN	melindroso	PICO dulce
MUTURtxuri (Pl. M.)	melindroso	MORRO blanco
ESKUitxi (F. Segura)	mezquino, tacaño	MANO cerrada
ESKUlabor (Pl. M.)	tacaño	MANO corta
ESKUgorde (F. Seg.) G	tacaño	MANO escondida
PIKOluze AN	deslenguado, charlatán	PICO largo
SABELtzorro	panza	funda de RIPAS
BN, G, L, S		
sagarBIOTZ R	jugo de manzana	CORAZON de manzana
TRIPuts G	esquivez	TRIPA vacía
ODOLgiro B, G, L	sanguinario	tiempo de SANGRE
MUTURRoneko AN	goloso	de buen MORRO
ZINTZURleun BN		GARGANCHON suave
BURgoi BN, R	altivo	CABEZA alta
BURUgoi (Pl. M.)	altivo	CABEZA alta
MAMINB	intimo	MEDULA
IPURkoloka G, S	inquieto	CULO inquieto

Hitz exozentrikoak «ANATOMI» osagaiez		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoa</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
KOPETA BN, G, L	valor	COPETE, FRENTE
BIOZtsu R	valiente	de mucho CORAZON
AHOzuri S	melindroso	BOCA blanca
AOzabal R, S	imprudente al hablar	BOCA ancha
BURUeritxi B	orgullosa	creído de CABEZA
ESKUurri (Pl. M.)	mezquino	MANO escasa
ESKUzur R	mezquino	MANO escasa
MIHIlaban	meloso	LENGUA resbaladiza
BURUloke B	necio	CABEZA movida
BURUtsu G	juicioso	de mucha CABEZA
MIHIgaizto (Pl. M.)	malhablado	mala LENGUA
umeMOKO B, G	imberbe, inexperto	MORRO de crío
BIZARmotx L	inexperto	BARBA corta
LARRUsoil (Pl. M.)	imberbe, inexperto	PIEL pelada
KASKAxuri AN, G	lelo, ingenuo	CABEZA blanca o pelada
ESKUgeiko G (Pl. M.)	atrevido, licencioso	MANO de más
BEGIzorrotz	perspicaz	OJO agudo
AN, BN, G, L, S		
BURtxoro BN, L	liviano, ligero	CABEZA loca
txoriBURU AN, B, G	casquivano, ligero	CABEZA de pájaro
BIHOTZ-samur	compasivo	tierno de CORAZON
(Pl. M.)		
MUTURgaizto AN, R	adusto	mal MORRO
MUTURRastun B	desabrido	MORRO pesado
BIHOTZestu	inquieto	CORAZON prieto
KOKOTZendi R	insolente	MENTON grande
AURPEGIandi B	carotas, insolente	CARA grande, CAROTA
MUTURluze AN	insolente, descarado	MORRO largo
BEGIRATU c.	cauteloso	MIRADO
SUDURRuxtu R	cólera	NARIZ vaciada
BEGIluze G, L	curioso	OJO largo
BETerre	lloroso	OJO quemado
BETizu AN, G	huraño	OJO huidizo
LEPAundi	temoso	CUELLO grande
MUTURtzorrotz B, G	adusto	MORRO agudo
MUTURbeltz c.	descarado	MORRO negro
AHOgorri S	descarado	BOCA roja
SABELtzuri L (Pl. M.)	tramposo	VIENTRE blanco
ederBEGI L	aspecto	OJO hermoso
BIHOTZapal	pusilánime	CORAZON sumiso
MOKOkari c.	pendenciero	MORRUDO
ESKUGizen L	generoso	MANO gruesa
ESKUluz AN, R	generoso	MANO larga
ESKUzabal	generoso	MANO ancha
BELARluze AN, G	eufemismo del cerdo	OREJAS largas
BELARmotz G	eufemismo del cerdo	OREJAS cortas
BELARRImotx AN, G	no-vasco (despectivo)	OREJAS cortitas
BIHOTZil AN, B	mustio, triste	CORAZON apagado
BURU-BUZTANAK	vicisitudes de negocio	CABEZA-COLA
BN		

Hitz exozentrikoak «ANATOMI» osagaiez		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoa</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
LEPAgogor (Pl. M.)	obstinado	PESCUEZO duro
BEGlalai	ale re	OJOS alegres
MUTURRapal S	eufemismo del cerdo	MORRO caído
MUTURRaundi G	descarado	MORRUDO
zatarIPERDI B	persona asquerosa	CULO feo
AOzikin BN, L, S	indecente	BOCA sucia
AOgordin R	indecente	BOCA verde (inmadura)
EPERdikara B	aguzanieves (pájaro)	temblor de CULO
BURUBELARRI AN, G	afanosamente	CABEZA-OREJAS
BURUgogor B, G, AN, S	terco	CABEZA dura
KASKAgogor G	terco	CRANEO duro
BIHOTZurragarri BN	aflictivo	desagarrador del CÒRAZON
mendiLEPO (Pl. M.)	altozano	CUELLO de monte
BEGIruNE AN, BN, G	respeto	espacio de MIRADA
BIHOTZ-bigun (Pl. M.)	clemente	CORAZON blando
ESKUgarbi B, G, L	persona sin vicio de robar	MANO limpia
ESKUpeko G	propina, sobresueldo	lo de bajo MANO
ESKUZikin AN, BN, L, R, S	ladrón	MANO sucia
ODOLerre S	hombre nervioso, inquieto	SANGRE quemada
MUTURRoker G	cierto licor	MORRO torcido
MOKOzorrotz AN, BN	de mal genio	PICO agudo
	melindroso	PICO blanquito
MUTURtzorrotz B G	irascible	MORRO agudo
MINGAINtxorrotz G	murmurador	LENGUA aguda
BIHOTZ-legor c.	insensible	CORAZON seco
BIHOTZidor (Pl. M.)	insensible	CORAZON reseco
KOPETAundi G	atrevido	COPETUDO
ESKUKoko R		MANO extraña
AZAZKAL-luze AN	ladrón	UNAS largas
BURUdun G	listo	dotado de CABEZA
ESKUmakur B	ladrón	MANO inclinada
AZALgezur (Pl. M.)	fariseo	PIEL postiza
ORTZargi (Azk.-Morf.)	simpático	DIENTE claro
ESKUnasai (Pl. M.)	generoso	MANO floja
ZINTZURkoi BN, L	comilón	aficionado al GAZNATE
SABELustel L	glotón	VIENTRE flojo (podrido)
ALU B, G	granuja (despectivo)	VULVA de mujer
TRIPustel	glotón	VIENTRE flojo
LARRUlazo (Pl. M.)	falso	PIEL floja
AZALtxuri AN		PIEL blanca
BEGIpeko B	predilecto	debajo los OJOS

Hitz exozentrikoak «ANATOMI» osagaiez		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoa</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
KOLKOKo G	predilecto	del REGAZO
LEPAzut	vanidoso, altivo	CUELLO erguido
BEGIarro	simpático	OJO saliente
ESKUase AN	dadivoso	MANO saciada
MUTURRon BN	goloso	de buen MORRO
MIHizuri (Pl. M.)	goloso	LENGUA blanca
MOKOzuri	embustero	PICO blanco
ESKUkoi BN, G, R	manso	fácil a la MANO
AOeder (Pl. M.)	facundo	BOCA hermosa
BEGIzehir	de falsa mirada	OJO sesgado
AZALuts (Pl. M.)	fanfarrón	pura CORTEZA
AOMotel G	tartamudo	BOCA floja
BURUberozale S	enredador	calienta CABEZAS
baldanIPURDI G	perezoso	CULO perezoso
KOPETAZAL AN	descarado	PIEL del COPETE
KOPET AN, B, G	descaro	COPETE
MUTUR G	descaro	MORRO
AOzikin (Pl. M.)	deshonesto	LENGUA sucia
etsaiMUTUR	huraño	MORRO de demonio
BARNEzuri L	falso	ENTRAÑA blanca
BURUgorri (Pl. M.)	cándido	rubio, CABEZA roja
BEGInaasi AN	torvo	OJO revuelto
BEGImakur (Pl. M.)	torvo	OJO inclinado
KASKurrio BN, G	retorcido, pillo	de PELO ensortijado
AOgordin	loquiverde	BOCA verde (cruda)
GIBELaundi G	cachazas	HIGADO grande
ARPEGIbako B	haragán	sin CARA
AURPEGIgabeko G	insolente	sin CARA
G		
ESKUxuri (Pl. M.)	haragán	MANO blanca
AOgorri G	malhablado	BOCA roja
AOgaizto	malhablado	mala BOCA
ZINTZURLuze L, S	bebedor	GAZNATE largo
MUXUmerke G	besuqueador	BESO barato
ZINTZURLazo R	bebedor	GAZNATE flojo
AGOandi AN	fanfarrón	BOCAZA
AObero B	fanfarrón	BOCA caliente
AOsoñu (Azk.) AN, G	beso	sonido de BOCA
BIHOTZ-gordin S	cruel	CORAZON duro (crudo)
MIHIluze L, BN, R	embustero	LENGUA larga
BIHOTZ-samur (Oih.)	clemente	CORAZON tierno
GOIarro G	vanidoso	CABEZA erguida
BURgoi BN, R	arrogante	CABEZA alta
ESKU-labur (Pl. M.)	tacaño	MANO corta
BIOTZ-gabe (Pl. M.)	desanimado	sin CORAZON
	insensible	sin SANGRE
ODOLEstu B, G	nervioso	SANGRE prieta
ODOLgaitz BN, L, S	violento	SANGRE mala
ESKUpeko G	propina	bajo la MANO
MINGAIN-luze (Pl. M.)	persona sin secretos	LENGUA larga

Hitz exozentrikoak «ANATOMI» osagaiez		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoa</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
AOpeko (Pl. M.)	secreto	bajo la BOCA
MOKOxuri (Pl. M.)	melindroso	PICO blanquito
BURUdun (Pl. M.)	sesudo	que posee CABEZA
AOgaizto AN	malhablado	BOCA mala
SABELbete (Pl. M.)	comilona	VIENTRE lleno
MOKOti (Pl. M.)	charlatán	provisto de PICO
AOandi (Pl. M.)	charlatán	BOCA grande
BIHOTZ-eri L	compasivo	CORAZON enfermo
BIRIKAndi AN, BN	pausado	PULMON grande
eurianKAME G	lluvizna	lluvia de PIE
		DELGADO

3. «ZOOLOGI» KONTZEPTUETATIK ESANAHI EXOZENTRIKOA

Zoologia arloa, bere hedadura zabalenean (*hegazti, narrastari, xomorro, ugaztun*, etab.), gure hiztegiko semantik intzidentzia nagusienetakoa da.

Euskarak angelu arrunt eta konkretuenak aprobetxatzen ditu baliotapen psikologiko eta sugerigarri berriak sortzeko. Lehen *gizena* faktoreari emankortasunaren balentzia erasten bazion (*eskugizen* = generoso), orain zenbait animalez *gaizto, bihurri* ala *zikin* konnotapenez baliatuko da moral-kontzeptuak isladatzeko. Beraz, animale batzuen negatibitate horrek erreferentzi zehatzak edukiko ditu moralaren ala tipologiaren mailan.

Honela, *oilanda, mozoiloa, txoria*, eta, batez ere, *ugaztun* zenbait, *astoa, azeria, otsoa, zerria, txakurra* bezala (eta baita *sugea, apoa* eta *zorria*) «zikin», «gaizto», «basa», «faltsu», hitz batean, *negatiboaren* balentziaz hornituta agertzen da.

Beraz, *basaren* (silvestre) kontzeptua (bestaldetik *basatiaren* (fiero) ideiaz hain lotua) euskarak herrian halako konnotapen *negatibo* batzuk dituzten animaletara joko du; adibidez, *asto, suge, azeri, zerri-ra*. Honela, «arveja silvestre» *sugeillar* AN (arveja de la *serpiente*), esaten da, «ciruelo silvestre» txerrigerezi AN, G, L (ciruelo del *cerdo*), eta «fresno silvestre» otsalazar G (fresno del lobo).

Kasu hauetan euskarak inguruko kulturak eskaintzen dizkion *konnotapen psikologiko* guztiak bereganatzen ditu, eta expresabide berri eta sugerigarriak mamitzen. Gaztelaniak ere badu, nolabait, mami-dura antzekoa *zorrolzorra* hitza norabide semantiko berdintsuan erabiltzean (gizon *maltzurra* eta andre *emagaldua* (prostituta) adieraztean). Kasu berdina gizon oso *beldurtiari* «gallina mojada» diotsanean, eta gizon *maltzurrari* ala *gaiztoari* «perro»,

Ala ere, euskaraz intentsitate larriagoa dago exozentritate arlo hontan. Goiko atalean garbiro probatuta gelditu da gure hizkuntzak duen mamidura *semantiko* berezia. Hemengo hitz soil eta konposatuek, bestalde, abantaila bat dute sarritan, alegia, oso *ulergarriak* direla, animala-izan hoiek oso ohizkoak eta arruntak baitira.

HITZ EXOZENTRIKOAK «ZOOLOGI» OSAGAIEZ		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoa</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
ABEREtzar	violento	BESTIA grande
SUGEbedar B, BN	betanzo (Bot.)	hierba de SERPIENTE
URDAmutur AN	cúpula de bellota	hocico de CERDO
azpiSUGE B	falso	SERPIENTE por debajo
azpiZAPO B	falso	SAPO por debajo
OTSAputz AN, L	bejin (Bot.)	cuesco de LOBO
BAREandi B	cachazas	gran LIMACO
janTXAKUR B	hombre inútil	PERRO comedor
EULIB, G	hombre inútil, cobarde	MOSCA
APObedar AN	gordolobo (Bot.)	hierba de SAPO
SUGEillar AN, G	neguilla (Bot.)	arveja de SERPIENTE
SUGEgerezi AN	cerezo silvestre	cerezo de SERPIENTE
SUGEarto G	cierta planta	maíz de SERPIENTE
URDaska (Pl. M.)	mujer perversa	CERDITA
ASTOtzar G	majadero	BURRAZO
ASTakaiku G	majadero	cuenco/BURRO
ZAKUR AN, B, G	astuto, felón AN, BN, L galbana	PERRO
TXAKURbelar R	cierta avena	hierba de PERRO
AZERImahats BN, S	agrazón (Bot.)	uva de ZORRO
TXAKURRamets B	fantasía	sueño de PERRO
BIRIGARRO G	travieso	MALVIZ
ASTAputz	majadero	cuesco de BURRO
AN, B, BN, G, S		
AZERIbedar B	amaranto (Bot.)	hierba de ZORRO
ULIpurdi AN	bobo	culo de MOSCA

Hitz exozentrikoak «ZOOLOGI» osagaiez		
<i>Euskal hitza</i>	<i>Semantika exozentrikoa</i>	<i>Semantika endozentrikoa eta literala</i>
ULIanka AN	bobo	pata de MOSCA
TXAKURtzuri B	galbana, desgana	PERRO blanco
TXAKURmosu B	persona desvergonzada	hocico de PERRO
TXERRIgaztaña B	castaña silvestre	castaña de CERDO
TXERRIporru B	cierta hierba silvestre	puerro de CERDO
TXARRImutur (F. Segura)	persona sucia	hocico de CERDO
ULIarfañaila AN, L	mariposa	MOSCA
ZERRIKItton AN	abandonado	CERDO
SUGETipula G	cebolla silvestre	cebolla de SERPIENTE
OILO c.	cobarde	GALLINA
OILAkeria (Pl. M.)	cobardía	acción de GALLINA
OIObusti BN, L, R, S	cobarde	GALLINA mojada
APOerrexil AN	perifolio (Bot.)	perejil de SAPO
MANDO B	enorme BN, L, estéril	MULO
ASTO c.	bruto, necio	ASNO
SAGU B (Añib.)	perspicaz	RATON
AZERI AN, B, G	astuto, perspicaz	ZORRO
BARGasta AN, B	meretriz, mujer de mala fama	CERDA
APObaratzuri G	ajipuerro (Bot.)	ajo de SAPO
SAPOporru B	ajipuerro (Bot.)	puerro de SAPO
SUBEbaratzuri B	ajipuerro (Bot.)	ajo de SERPIENTE
KAKALARDO G	persona insustancial	ESCARABAJA
OILANDAgazte G	mujer presumida	POLLA joven
OILANDA G	chica inexperta	POLLA
ZAKURtzuri L	falso	PERRO blanco
PIKAbuztan L	inconstante	cola de URRACA
TXARRIokaran B	ciruelo silvestre	ciruela de CERDO
URDE-arhan S	ciruelo silvestre	ciruela de CERDO
ASTAzakil G	imbécil	verga de ASNO
ASTAziri L	imbécil	verga de ASNO
AXERIlarru BN, S	borrachera	piel de ZORRO
XERRIbaba (Pl. M.)	beleño negro (Bot.)	haba de CERDO
MANDAmats G	uva silvestre	uva de MULO
KATUerdian G	bebido	a medio GATO
OKIL B, G	cobarde	MOSCA
ZAPOerdera B (F. Segura)	cobarde, presumido	PAJARO carpintero
AUNTZerdera B	jerga, lengua convencional	erdera de SAPO
AKETO B, G	jerga, lengua convencional	erdera de CABRA
SUGAmats B, G	imbécil	CHIVO pequeño
KUKUSO (Pl. M.)	cierta planta	uva de SERPIENTE
ASTAilhar AN, B, G	inquieto	PULGA
OTSOporru G, L, BN, R	engreído	GALLO
	arveja silvestre	arveja de ASNO
